

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

6106

EBAZPENA, 2017ko azaroaren 27koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez eguneratzen baitira Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren emakidadunek 2018. urtean ezar ditzaketen tarifak.

Apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuan (martxoaren 16ko 48/2004 Dekretuaren bidez aldatu zen) ibilgailu automobilen segurtasunaren arloko aztertze-, izapidetze- eta kudeatze-eginkizunak zehaztu dira. Ibilgailuen azterketa teknikorako zerbitzua duten entitate emakidadunei izenda dakizkieke eginkizunok.

Aipatutako apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuaren 7. artikuluan xedatzen denez, dekretu hori garatzeko xedapenetan ezarriko dira azterketa teknikoaren zerbitzuengatik tarifak, dekretu beraren azken xedapenenetik lehenengoan xedatutakoari jarraikiz.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak 2011ko abenduaren 5eko Aginduaren 8. artikuluan xedatu zen tarifak urtero eguneratuko direla, urriko urtetik urterako KPlaren aldaketa aplikatuz. Eguneratutako tarifak hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

Halaber, aipatutako abenduaren 5eko Aginduaren azken xedapenaren bidez, Industria Administrazioan eskumena duen zuzendariari ahalmena ematen zaio agindu hori eta aplikatu beharreko araudia interpretatzerakoan sortzen diren zalantzak erabakitzeko, bai eta agindu hori garatzeko beharrezko diren xedapenak emateko ere.

2016ko azaroaren 25ean, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren zerbitzuaren emakidadunek 2017. urtean ezar zitzaketen tarifak eguneratu ziren, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazio zuzendariaren ebazpen baten bidez.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza da ebazpen hau hartzeko organo eskuduna, hala xedatuta baitago Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren 13. artikuluan.

Ikusita lege horrek eta bestelako xedapen orokorrek eta bateragarriek zer dioten, honako hau

EBAZTEN DUT:

2011ko abenduaren 5eko Aginduaren I., II. eta III. eranskinetan argitaratutako tarifak eguneratzea, 2017ko urriko urtez urteko kontsumo-prezioen indizearen arabera. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, beraz, ebazpen honetako I., II. eta III. eranskinetan zerrendatutako tarifak aplikatuko dira.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa jar dakiok Industriako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik hasita. Hori guztia, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan azaltzen denari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 27a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
AITOR PATXI OREGI BAZTARRIKA.

2017ko abenduaren 20a, asteazkena

I. ERANSKINA

ALDIZKAKO AZTERKETENGATIKO TARIFAK

Ibilgailu-mota	Tarifa	
	Prezioa (€)	Prezioa BEZa (% 21) barne
1. Kategoriako ibilgailuak (Motozikletak, ziklomotorrak eta motordun ibilgailuak, gehienez hiru gurpilekoak)	19,44 €	23,52 €
2. kategoriako ibilgailuak (Automobilak, koadrizikloak eta 3.500 kg-ra arteko BGMa duten salgaien ibilgailuak)	35,93 €	43,48 €
3. kategoriako ibilgailuak (3.500 kg-tik gorako BGMa duten salgaien ibilgailuak, eta pertsonak garraiatzeko diren ibilgailuak, bederatzi plaza baino gehiagokoak, tren turistikoak barne)	53,05 €	64,19 €
Atoiak eta erdi-atoiak	30,73 €	37,18 €
Traktoreak eta nekazaritzako makinak	30,73 €	37,18 €

Oharra: tarifa hauei gehituko zaie Trafiko Buruzagitza Zentraleko ibilgailuen erregistroan ibilgailuen azterketa teknikoan izandako emaitzak idazteagatik ezarritako tasak, aipatutako azterketa teknikoaren egiteko arauzko betebeharrak dagoen kasuetan.

2017ko abenduaren 20a, asteazkena

II. ERANSKINA

ERREFORMEN TARIFAK

Eranskin honetan ageri dira erreforma garrantzitsuen azterketa teknikoetan aplikatu behar diren tarifak. Tarifa horiei, gainera, beste tarifa bat aplikatuko zaie, III. eranskineko erreformaren izapideak egiteagatik.

Erreforma egitean ibilgailuaren masa edo ardatzen banaketa aldatzen bada, azterketa teknikoagatiko tarifaz aparte, pisatze-tarifa ere ezarriko da.

Erreforma bat egiteko proiektua aurkeztu behar denean, proiektua ikuskatzeagatiko tarifa ere ezarriko da.

Ibilgailu-mota	1. mota		2. mota		3. mota	
	Prezioa (€)	Prezioa BEZa (% 21) barne	Prezioa (€)	Prezioa BEZa (% 21) barne	Prezioa (€)	Prezioa BEZa (% 21) barne
1. kategoriako ibilgailuak (Motozikletak, ziklomotorrak eta motordun ibilgailuak, gehienez hiru gurpilekoak)	19,44 €	23,52 €	9,69 €	11,72 €	4,87 €	5,89 €
2. kategoriako ibilgailuak (Automobilak, koadrizikloak eta 3.500 kg-ra arteko BGMa duten salgaien ibilgailuak)	35,93 €	43,48 €	18,00 €	21,78 €	8,98 €	10,87 €
3. kategoriako ibilgailuak (3.500 kg-tik gorako BGMa duten salgaien ibilgailuak, eta pertsonak garraiatzeko diren ibilgailuak, bederatzi plaza baino gehiagokoak, tren turistikoak barne)	53,05 €	64,19 €	26,49 €	32,05 €	13,26 €	16,04 €
Atoiak eta erdi-atoiak	30,73 €	37,18 €	15,32 €	18,54 €	7,65 €	9,26 €
Traktoreak eta nekazaritzako makinak	30,73 €	37,18 €	15,32 €	18,54 €	7,65 €	9,26 €
Proiektua ikuskatzea	14,73 €	17,82 €	14,73 €	17,82 €	14,73 €	17,82 €

III. ERANSKINA

BESTE AZTERKETA BATZUEN TARIFA

Azterketa-mota	Tarifa	
	Prezioa (€)	Prezioa BEZa (% 21) barne
Salgai arriskutsuen edo galkorren garraio-ziurtagiriaren luzapena	2. mota + izapideak	
Izapidea	10,18 €	12,32 €
Ibilgailuen pisaldia	13,04 €	15,78 €
Matrikulatu aurreko azterketa	29,43 €	35,61 €
Adin txikikoen eta eskola-garraioaren azterketa berezia	21,53 €	26,05 €
Zatikako azterketa	3. mota 1. motako tarifa gehienekoa izanik	
Joan-etorri gastuak (km bakoitzeko)	0,54 €	0,65 €
Joan-etorriagatiko gutxieneko fakturazioa	10,81 €	13,08 €

Oharrak:

- 1.– Matrikulatu aurreko azterketagatiko tarifari aldizkako azterketagatiko tarifa gehituko zaio, ibilgailuaren kategoriaren arabera, eta, kasuan kasu, erreformak erregularizatzearen eta pisatzearen izapideena ere bai.
- 2.– Eskola-garraioaren azterketa berezia ibilgailu astunei aplikatuko zaie, eta aldizkako azterketako tarifari gehituko zaio.
- 3.– Eskola-garraioko altako erreformetan eskola-garraioaren tarifa bera aplikatuko da, erreformako tarifari gehituta.
- 4.– Ibilgailu arinei, gehienetan taxiei, ez zaie aplikatuko eskola-garraioaren tarifa kasu hauetan: taxi bidezko eskola-garraioaren azterketa bereziak badira eta horiek ibilgailuren aldizkoarekin batera egiten badira; eskola-garraioari dagokiona bakarrik egiten bada aplikatu egin beharko da.